

OLTZA ZENDEAKO UDAL HAUR ESKOLA

Eskolaren datuak:

Eskolako telefonoa: 948321391

Udaleko telefonoa: 948322068

Helbidea: Asiaingo errepidea, 10
K.P. 31171 ORORBIA

Helbide elektronikoa:
ei-oltza-he@hotmail.com



Informazio gehiago
www.ayuntamientoolza.com

Dindaia Fundazioak kudeatuta



ORDUTEGIAK

Sartzeko ordu tartea:

7:30etatik 9:30etara

Irteera ordu tarreak:

Bazkaldu aurretik: 12:00etan

Bazkaldu ondoren, siesta egin aurretik: 13:15etatik 13:30etara

Siesta egin ondoren: 14:30etatik 16:00etara

Bestelako orduetan eskolako atea itxita izango dira.

Haurrak, gehienez, egunean 8 orduko egonaldia egin dezake

EGUTEGIA

2024/2025ko ikasturtea irailaren 5an hasiko da.

HARRERA-ALDIA

HARRERA-ALDIA.

Ahalik eta pertsonalizatuena eta zoriontsuena egiten da, haur bakoitzaren erritmoak errespetatuz. Lehenengo hiru egunetan ordutegiak murriztuak izango dira (75/90 min) eta progresioa individualizatua izango da aukeratutako ordutegira iritsi arte. Lehenengo hiru egun hauetan, zuetako bat ikasgelan egongo zarete zuen seme-alabekin. Aldi horren iraupena desberdina da haur bakoitzarentzat, baina bi aste izaten dira normalean harrera ona egiteko erabiltzen direnak.

PEDAGOGIA

Lehenik eta behin, eskola leku atsegina eta erakargarria izatea bilatzen dugu, non esperientzia aberatsak eta interesgarriak sor daitezten, bai eguneroko momentuetan (komunean, bazkarian, lo uneetan..) bai jolasean eta elkarren arteko harremanetan ere. Afektiboki eta emozionalki giro eta harreman lasaiak sortzeari lehentasuna eman nahi diogu, haurrak eskolan eroso eta pozik senti daitezten eta, ondorioz, esperimentatzeko eta jolasteko gogoia sor dakien. Ongizate fisiko eta afektiboa beste guztiaren oinarria izango da.

Azken urteotan Budapesteko Lòczy Institutuko Emmi Pikler doktorearen pedagogian formatu gara. Hau da, haurrari bere garapen progresiboan eta autonomian laguntzen diogu. Behaketaren bidez, haur bakoitzaren heltze-prozesua, bere interesak... ikus ditzakegu, eguneroko errutinetan parte hartzeko aukera emanez. Ez diegu aurrea hartzen haien garapenei, errespetatu egiten dugu, eta, horrela, haurrak berak ezagutuko ditu haien gaitasunak eta mugak, eta beren buruarengan konfiantza izango dute.

Jarrera eta trebetasun motorrak ikastea, ez dugu hori zuzenean estimulatzeko; aitzitik, espazio eta material egokiak prestatzen ditugu, eta haurrari laguntzen diogu prozesu horretan (iraultzen, esertzen, katuka ibiltzen, ibiltzen... ikastea). Haurrek jaiotzen direnetik dituzten ahalmenez fidatzen gara eta horiei espazioa eta denbora ematen diegu.



“Haur bati bere kabuz ikas dezakeen zerbait irakastea alfer izateaz gain, kaltegarria ere izan daiteke. EMMI PIKLER

Jolasean, mugimenduan, jarreretan eta eguneroko jardueretan haurra ahalik eta libreana izatea bilatzen dugu. Haien interesak eta erritmoak errespetatzen ditugu. Haurraren ikaskuntza-prozesuetan zuzenean ez esku hartzen saiatzen gara, berak esperimendatuz deskubritu, zuzendu eta goza dezan, emaitzak eta ematen den prozesua bera autoerregulatu eta balora ditzan. Horrek esan nahi du haurrak berak jartzen duela bidearen protagonismoa eta norabidea.

Haurren berezko ontasunean sinesten dugu, eta bizikidetzarako, higienarako eta gizarte ohiturako oinarritzko arauak barneratzen laguntzen diegu.

Haur bakoitzaren premiei ahalik eta modu individualizatuenean erantzun nahi diegu, haurra pertsona gisa errespetatuz. Jangelan, adibidez, animatu egiten gara, baina ez dugu inoiz jatera behartzen, goserik ez badu edo janaria gustuko ez badu.

Erreferenteen arabera lan egiten dugu, hau da, hezitzaile bat izango da erreferentzia nagusia haur talde jakin batentzat eguneroko elkarreragin une hurbilenetan: garbitasuna, bazkaria, loa... (Loris Malaguzzi)



Familiei dagokienez, lotura ona sortu eta mantendu nahi dugu, helburu bera lortzeko, hau da, beren semearen edo alabaren ongizatea lortzeko. Familia-eskola harreman hori errespetuzkoa eta konfiantzazkoa izango da.

ESKOLAKO OINARRIZKO ARAUAK

OSASUN ARAZOAK ESKOLAN. *Haurrak gaixorik daudenean ezin dira eskolara etorri.*

Ezin izango dira etorri hauetako sintomaren bat dutenean:

- Hotzeriak eragindakoak: ez tul bizia, kongestio handia, sukarra.
- Hesteetako edo gastrikoak: gastroenteritisa, goitika edo beherako egitea, sukarra, mina...
- Konjuntibitisa (supuratzen duenean edo deseroso sentitzen denean)
- Zorriak (tratamendua egin ondoren, eskolara bueltatu ahalko da haurra)
- Kutsakorra den azaleko edozein gaitz.
- Haurraren ongizatea nabarmen gutxitzen duen edozein gaitz.
- Kutsakorra den beste edozein gaixotasun edo gaitz.

Familiek ulertu beharko duzue eskolan gaixo dagoen haur batek gainerako haurrak eta hezitzaileak kutsa ditzakeela. Beste aldetik, eskolan ditugun haur kopuruak eta erritmoak kontuan hartuta, haurra ezingo dugu behar bezala zaindu.

Haurra, eskolan dagoela, ondo moldatzen ez bada, etxera eraman dezazuen deituko dugu. Baimenik gabe ez dugu emango minerako edo sukarrerako sendagairik. Eskolan ez dugu antibiotikorik emango. Ez ahaztu ezinbestekoa dela zuetakoren batekin harremanetan jartzea. Horregatik, telefono-zenbakiak aldatzen badira, jakinarazi, mesedez.

Gure ikuspuntuaren arabera, haurra eskolan egoteko moduan ez badago eta, hala ere, bertaratzen bada, gaixotasuna kutsakorra ez dela eta haur-eskolara joan daitekeela baieztatzen duen txosten mediko bat eman beharko diguzue.

Eskolan istripurik izatekotan, larritasunaren arabera joko dugu. Haurra osasun etxera eramatea beharrezkoa ikusten badugu, familiari egoeraren berri emango diogu eta honek eraman ala ez erabakiko du. Posible bada, familiak berak eramango du haurra osasun etxera. Anbulantzia bidez egin behar bada, familiari esango diogu osasun zentroan elkartzeko.

ETXETIK EKARRITAKO JANARIA.

Kontuan izan oso ohikoa dela alergia duen haurren bat eskolan izatea eta edozein elikagai arriskutsua izan daitekeela. Kanpoko armairuetan ere ez, mesedez. Eskolarako bidean, batez ere 8:00tatik aurrera, zerbait jaten ari badira, gelan sartu aurretik bukatu edo utzi beharko dute.

JANTZIAK ETA ETXETIK EKARRITAKO OBJEKTUAK.

Erosoa izan dadila haurraren autonomian laguntzeko. Haurrak janzten duen arropa eta ordezeko arropa haurraren izena jarrita eraman beharko dute. Bestela, beste haurren arropekin nahastea oso erraza da.

Etxetik ekarritako jostailuek askotan liskarrak eragiten dituzte, besteak beste, beste utzi nahiko ez dietelako. Galtzeko eta apurtzeko arriskua ere bada. Beraz, etxetik jostailuak eta objektuak ez ekartzeko eskatzen dizuegu.

Egoera ezberdina izango litzateke haurraren objektu pertsonala edo berezia ekartzea. Egunero objektu-jostailu-panpina bera ekartzen duenean eta horrekin lotura berezia duenean, oso lagungarria izan daiteke haurra lasaitzeko eta beste haurrek berehala ikasten ohi dute norena den eta errespetatu behar dugula. Objektu berezi hori mina hartzen duenean, triste edo beldur denean, goizeko agurretan, lo egiteko orduan... eskatzen ohi da. Eskolako lehenengo egunetan ere oso lagungarria izaten da.

HAUR HEZKUNTZAREN LEHENGO ZIKLOAREN ARAUTEGIA.

- *Hezkuntzaren Lege Organikoa, 2020/3 abenduaren 29an (aldatzen du 2006/2, maiatzaren 3ko Legea).*
 - *2007/28 Foru Dekretua, martxoaren 26koa: Haur Hezkuntzako lehen zikloa erregulatzeko du (modifikazio barne 2022/61 Foru Dekretuan, ekainaren 1ean, non Nafarroako Haur Hezkuntzako kurriculua ezartzen duen) zentroen gutxieneko betekizunak eta hezkuntza edukiak.*
 - *16/2024 Ebazpena, martxoaren 1ekoa: 2024/2025 ikasturtea onartzeko prozesua arautzen duena.*
 - *68/2024 Foru Agindua, martxoaren 6koa: 2024/2025 ikasturtea onartzeko prozedura onartzen duena.*
-

Plazer bat aro polit hau zuekin partekatzea!